

KONTROL MOZIOA

indarkeria matxistaren aurrean erantzuna emateko protokoloari buruzkoa

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko martxoaren 11n Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana jarraituz, Indarkeria Matxistarik gabeko bizitzari dagokion lerroaren baitan dago adierazpen eta harreman publikoetarako protokoloaren osaketa eta aplikazioa. Protokolo horren baitan, indarkeriari erantzun egokia emateko arretarako eta koordinaziorako protokoloa eta jendaurrerako erantzuna egiteko jarraibideak ematen dira.

Esan bezala, beraz, protokoloak hainbat helburu bete beharko lituzke: Donostiako Udalaren posizionamendu politikoa hirian jazotako eraso sexisten aurrean, batetik; bestetik, eraso jaso duen pertsonari eskura izan ditzakeen zerbitzuen berri ematea eta, finean, akonpainamendu lan hori egitea.

Protokolo hori oso berria da; 2023ko uztailkoa, hain zuzen ere, Gasteizko eta Eusko Jaurlaritzaren protokoloetan oinarritua eta ekimen tekniko bidez onartua. Beraz, ulertzen dugu Udal Gobernuak ados dagoela protokoloak jasotzen dituen printzipio, helburu eta urratsekin. Ordea, errealitatea bestelakoa da.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Zoritxarrez, legegintzaldia hasi denetik protokoloa aktibatzeke ezaugarriak behin baino gehiagotan eman dira. Ordea, kasu gehienetan, ez dira jarraitu zehaztutako urratsak: jendaurreko erantzuna zalantzan jartzea, erasoak jasan duten pertsonekin harremanetan jartzeko zailtasunak... Larria da Udalak berak ezarritako protokoloa jarraitu ez izana, eta uste dugu protokoloa errespetatu beharrekoa dela.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indarkeria matxistaren aurrean erantzuna emateko protokoloa bete dezala.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari protokoloaren arabera barne mailan biktimari begira egin beharreko lana lehenetsi dezala, horretarako erraztasunak jarritz eta egin beharreko moldaketak eginez.

Donostian, 2024ko martxoaren 15ean

Izar Hernando Ibero
EH BILDU udal taldeko zinegotzia